

www.osakidetza.euskadi.net/sida



galdetuko balizute,
**ZER ESANGO
ZENUKE
HIESAZ?**

2014ko MAIATZA



Osakidetza



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

ZER

ADIERAZTEN DUTE "HIES" SIGLEK?

H

Hartutako: ez herentziaren bidez, birus batek eraginik baizik.

I

Immuno: gure gorputzak gaixotasunetatik babesteko duen sistemarekin lotuta dagoela.

E

Eskasia: babes sistema behar bezala ez dabilela adierazten du.

S

Sindromea: gaixotasun baten ezaugarri diren sintomen multzoa.


ZERK ERAGITEN DU HIESA?

Hiesa, hartutako giza immunoeskaziaren birusak (GIB) sortzen duen infekzioaren egoera aurreratua da, immunitate-sistemaren suntsitze progresiboa eragiten duena.

ORGANISMOAREN ZER FLUIDOK TRANSMITITZEN DUTE GIB-A?

Lauk bakarrik: odolak, semenak, baginako jariakinek eta amaren esneak. Horiek bakarrik dute GIBa transmititzeko adina kontzentrazio.

Horrela, bada, GIBa hiru bide hauetatik kutsa daiteke: sexu bidez, odolaren bidez eta amak haurra.



ZER GERTATZEN DA PERTSONA BAT INFEKTATZEN DENEAN?

Infekzioa duen pertsona bat urteak egon daiteke sintomarik gabe.

Denbora igaro ahala, kutsatutako pertsona gehienetan, sintoma batzuk azaltzen dira, hala nola sukarra, pisu-jaitiera, beherakoak, gauez izerditzea, eta abar. Sintoma horiek beste gaixotasun batzuetan ere ageri dira, baina kasu horretan organismoaren babes-sistemak aldaketak jasan dituela eta behar bezala ez dabilela adierazten dute.

Defentsa-sistema oso makalduta dagoenean infekzio eta minbizi oportunistak batzuk agertzen dira. Horiexek adierazten dute pertsonak gaixotasuna garatu duela; hiesa, alegia.

GIBaz kutsatutako pertsona guztiek, sintomak izan edo ez, kutsa diezaiekete birusa beste pertsona batzuei.

Sexu-praktika guztiek ez dute kutsatzeko arrisku bera.



ARRISKU
HANDIKOAK
Uzki bidezko
koitoak



ARRISKU
HANDIKOAK
Bagina bidezko
koitoak

NOLA KUTSATZEN DA HIESAREN BIRUSA? NOLA PREBENITZEN DA?


Hiru dira hiesaren birusa kutsatzeko bideak:

1. Sexua
2. Odola
3. Amarengandik haurrarengana


1. SEXU BIDEZKO TRANSMISIOA

GIBa, gaur egun, batez ere sexu bidez kutsatzen da.

Infektatzeko arriskua handiagoa da babesik gabeko sexu-harremanak maiz izanez gero; baina, babestu gabe, behin bakarrik egitea nahikoa izan daiteke infektatzeko.



BALIZKO
ARRISKUDUNAK
Aho-genitalen
bidezko harremanak
(fellatio, cunnilingus)



ARRISKURIK GABEKOAK
Elkarri egindako masturbazioa,
laztanak, musu intimoak,
masajeak, eta abar.

Prebentziorako neurriak

Sexu-harremanak izatean, GIBaren aurrean babesteko erarik errazen eta eraginkorrena preserbatiboa edo kondoia erabiltzea da.

Nork eta noiz erabili behar du kondoia?

GIBa duten pertsonekin penetraziozko sexu-harremanak dituzten guztiek preserbatiboa erabili behar dute; bai eta edozein pertsonarekin ere, infekzioarekiko zer egoeratan dauden jakiten ez bada. Penetraziozko sexu-harreman mota guztietan erabili behar da preserbatiboa, hasi eta bukatu arte; harreman bukogenitalean ere bai.

Eraginkorrak dira preserbatiboak GIBak eragindako infekzioaren prebentziorako?


Frogatuta dago preserbatiboa barrera-metodo eraginkorra dela, bai GIBari, bai sexu bidez kutsatzen diren beste infekzio batzuei, kontra egiteko.

Preserbatiboak prebentzio-metodo gisa huts egiten badu, honegatik izango da ziurrenik:

* Ez da beti erabiltzen, hau da, ez da koito guztietan erabiltzen.


* Ez da era egokian erabiltzen, hau da, ez da koito osoan zehar erabiltzen.

Preserbatiboa oso gutxitan hausten da, batez ere behar bezala erabiltzen ez delako (iraungitako kondoiak erabiltzea, olio lubrifikatzaileak erabiltzea).



Emakumezkoentzako preserbatiboa eraginkorra da?

Emakumezkoentzako preserbatiboa ere eraginkorra da GIBari aurre egiteko.






Nola erabiltzen da preserbatiboa era egokian?

1. Soilik osasun-agintariek homologatutako preserbatiboak erosi.
2. Kondoia iren irungitze-data kontrolatu.
3. Leku fresko, lehor eta eguzkitik edota argitik babesean gorde.
4. Kondoia kontu handiz maneiatu, azkazal, eraztun, hortz eta abarrekin ez hondatzeko.
5. Kondoia zakila tente dagoenean jarri, edozein kontaktu genital izan aurretik.
6. Zakilaren oinarriraino zabaldu, lehenago kondoia iren muturra estutuz, airea iraitzeko eta haziarentzat lekua uzteko.
7. Kondoia koito osoan erabili. Isurketaren ondoren, zakila atera, oraindik tente dagoela, kondoia behealdetik helduta hazirik ez dela ateratzen ziurtatzeko.
8. Kondoia zakarretara bota, inoiz ez komunera.
9. Kondoia inoiz ez berrerabili.

Nola lubrifikatzen dira kondoia?

Kondoia, normalean, lubrifikatzaile pixka bat daramate. Lubrifikazio handiagoa nahi izanez gero, ur bidezko lubrifikatzaileak besterik ez dira erabili behar (glizerina edo botiketean saltzen diren bestelako lubrifikatzaileak).

Olioak duten produktuek preserbatiboa honda dezakete.



2. ODOLAREN BIDEZKO TRANSMISIOA



Orratz, xiringa eta droga prestatzeko erabiltzen dituzten tresnak elkarri trukatzearen bidez gertatzen da nagusiki.

Prebentziorako neurriak

Ez orratzik, ez xiringarik eta ez injektatzeko bestelako tresnarik elkarri trukatu. Nahikoa da behin trukatzea infektatzeko.

Xiringa botagarri berria erabili behar da aldiro.

Bizarra mozteko aitzurrak, hortz-eskuila, eta odola ukitu dezaketen beste tresna batzuk (tatuajerako edota akupunturarako tresnak, belarriak zulatzekoak, eta abar) ere ez zaizkio elkarri trukatu behar.

3. AMARENGANDIK HAURRARENGANAKO TRANSMISIOA

Amarengandik haurrarenako transmisioa haurdunaldian, erditzean edota edoskitzaroan gerta daiteke.

Hala ere, gaur egun, haurdunaldian eta erditzean tratamendu antirretobirala emanda, edo aipatutako kasuetan hautapenezko zesarea eginda, edo haurrari amaren bularra kenduta, ia ez dago arriskurik amak haurrari GIBa kutsatzeko.



NOLA EZ DA KUTSATZEN GIBAREN BIRUSA?

GIBa ez da kutsatzen ez tularen edo doministikuaren bidez, ezta mahai-tresnak, edalontziak nahiz platerak elkarri trukatzuz ere. Halaber, hiesa ez da kutsatzen komun publikoak edo igerileku publikoak erabiltzeagatik, eskua luzatuz, eta abar. Inoren lagun, senitarteko, irakasle, ikaskide, lankiderik, eta abar ez da kutsatu eguneroko bizitza normalean.

Animaliek (zakurrak, katuak, eltxoak...) ez dute kutsatzen GIBa.

NOLA JAKIN DAITEKE PERTSONA BAT GIBAREN ERAMAILEA OTE DEN?

Proba espezifiko bat besterik ez dago horretarako: GIBaren proba.

Probaren emaitza fidagarria izateko, azkeneko arriskuzko jardueratik 3 hilabete pasatzen utzi behar dira proba egiteko unera arte.

Proba positiboa baldin bada, pertsona hori seropositiboa dela esaten dugu. Pertsona hori seropositiboa izateak ez du gaixotasuna duenik esan nahi, baina bai, ordea, birusa gorputzean daukala eta beste pertsona batzuei kutsa diezaiekeela.

GIBaren proba, beti ere, egingo dioten pertsonaren onespenez burutu beharra dago, eta gainera emaitzak isilpean gordeko direla bermatu.

GIBaren proba egin nahi dutenek, izenik eman gabe eta isilpean, honako hauek jo dezakete:

- **Donostia:** Hiesaren eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Plana. Nafarroa hiribidea 14, 8.a. T: 943 00 64 64
- **Bilbo:** STlen Zerbitzua. Etxaniz Suhiltzailearen plaza 1, 1.a. T: 94 600 69 69
- **Gasteiz:** Olagibeleko Osasun Zentroa. Olagibel kalea, 31. T: 945 00 79 00 (2013 luz.)
- **Familiako medikua** • **Farmaziak**

Kanpoko itxuragatik ez dago jakiterik inor GIBaz kutsaturik dagoen ala ez.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO

- **HIESAREN ETA SEXU TRANSMISIOZKO INFEKZIOEN PLANA**
T: 943 00 64 64 www.osakidetza.euskadi.net/sida
- Bizkaiko hiesaren kontrako batzordea T: 94 416 00 55
- Arabako hiesaren kontrako batzordea T: 945 25 77 66
- Gipuzkoako hiesaren kontrako elkarteak T: 943 29 07 22
- Hiesaren aurkako T4 elkarteak T: 94 422 12 40
- Harri Beltza, hiesaren aurkako elkarteak T: 943 49 35 44
- Itxarobide T: 94 444 92 50